



## EH Bilduk eta EAJ-PNVk aurkeztutako adierazpen insituzionala

### “EKAINAREN 28ko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

*Pertsona guztiak duintasunean eta eskubideetan libre eta berdin jaiotzen dira. Hitz hauek ageri dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren lehen artikuluan. Tokiko udalen, erakundeen eta herritarren eskubideen babesaren eta defensaren bermatzaileen oinarrizko lana gidatzen du“*

Ekainaren 28, LGTBIQ (Lesbiana, gay, transexual, bisexual, intersexual, queer) harrotasun eguna, eskubideak aldarrikatzeko nazioarteko eguna da, errespetua eta bizikidetzaren aniztasunaren ikuspegitik aldarrikatzekoa. Duela mende erditik ospatzen da, Stonewallen, polizia errepresioaren ondoren homosexualek plantoa egin zutenetik.

Nabarmenak dira gai horri buruz egindako aurrerapenak, lege-arloan nahiz gizartearen ideiei dagokienez, lorpen horiei esker iragazkortasun handiagoa lortu du baita sexu-aniztasuna bizitzeari dagokionez ere. Baina horrek ez gaitu engainatu behar, LGTBIfobia errealitate bat baita oraindik ere.

Homofobiaren kontrako eguna aldarrikatu berri dugun honetan, kolektiboak nazioarte-eremuan aurre egin behar dion egoera zaila nabarmendu nahi dugu. Ez dugu ahaztu behar LGTBIfobia gehien hedatuta dagoen gorroto-moduetako bat dela eta 70 herrialdetako baino gehiagotako zigor-kodeetan instituzionalizatuta dagoela eta zigor-kode horietan genero-orientazio, -identitate eta -adierazpen desberdinen arau errepresoreak biltzen direla. Hori guztia ahaztu gabe herrialdeek gaur egun ere aurreikusten dutela LGTBI kolektiboari heriotza-zigorra aplikatzeko aukera, baita kolektibo horrek herrialde askotan aurre egin behar dien gorroto-krimen kontaezinak ere. Urrun dagoen zerbait dela ematen duen arren, kontua da, gure ingurunean gero eta gehiago ikusten den errealitatea dela; izan ere, egoera dramatiko horrek eragindako asilo-eskaerak izugarri ari dira igotzen azkenaldi honetan.

Era berean, agendak, ospakizunek, ekitaldiek eta gainerakoek, horrelako errealitateak gure gizartean gero eta toki gehiago duela gogorarazten digu. Gipuzkoan asko eta asko dira egun hau ospatzen duten herriak, modu honetan, gainera, heteroarauak ezarritako eredutik kanpo agertzen diren sexualitate motak ierarkizatu eta baztertzen duen identitate sexualak ezarritako aurreritziatik, edozeinek eremu horretan askatasunez bizitzeko duen eskubidea agerian jarriaz. Ildo honetatik aipa daiteke aldarrikatu berri dela, apirilaren 26an, hamargarren urtez, Ikusgaitasun Lesbikoaren Nazioarteko Eguna eta honek argi uzten du, oraindik ere asko dagoela egiteke.

Tokiko administrazioak dira beren gertutasunagatik herritarren beharrak neurtzeko lehen termometroa. Ezinbestekoak dira, beraz, herritarren bizikidetzaren babesteko eta pertsonak ez diskriminatzea zaintzeko, edozein dela ere beren arraza, sexua, adina, jatorria eta sexu orientazioa.

Toki administrazioak egitura garrantzitsuenetakoak dira eskubideak eta askatasunak bermatzeko eta ongizate estatuari egiten dion ekarpena bultzatzeko.

Beraz, Oñatiko Udalak:

- Giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, baita aniztasun sexualaren, genero identitatearen eta orientazio sexualaren arabera jendea ez diskriminatzearekin ere. Egin diren aurrerapausoak aitortzeaz gain, berresten dugu egun oraindik dauden barrerak gainditzeko gure erabakia.
- Aniztasun sexualaren aldeko eta orientazio sexualaren edo genero identitatearen arabera pertsonak ez diskriminatzeko politiketan apustu egiteko beharra adierazten dugu. Horretarako programak garatu behar dira, harrera proiektuak, informazioa, formazioa, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa. Horrela lortuko dugu gure herriak gune seguruak izatea aniztasun sexualarentzako bere adierazpen guztietan.
- Edozein motatako erasoak gaitzesten dugu gure udalerrietan; indarkeria fisikoa edota hitzezkoa, umiliazioa edota LGBTBIQ pertsonen gutxiespena. Horregatik, konprometitzen gara:
  - a) Askatasun sexualaren alde lan egiten duten taldeei eta elkarteei eta zehatzago, LGBTBIQ kolektibo eta berdinasunaren arloan lan egiten dutenei gure laguntza eskaintzera
  - b) Herritar guztiei zuzendutako sensibilizazio eta kontzientziazio kanpainak bultzatzera.
  - c) Ekainaren 28ko alkarrikapen eta ospakizuna ikusgai egitera; horretarako udaletxeko balkoian ortzadar bandera zintzilikatuko da eta gainera urtetik-urtera LGBTBIQ kolektiboaren eskubide eta askatasunerako ekintzak gehitzen joango dira.
  - d) LGBTBIQ Kolektiboa identifikatzen duten taldearen sinboloak agerian jartzeko gero eta espazio gehiago jartzera, horretarako herriko paisaiarekin bat egin eta aldarrikapena urte osoko ekintza izan dadin.

Oñatiko Udaletik herritarren aurrean LGBTBIQ kolektiboaren askatasun eta babesarekin konpromezua adierazi nahi dugu ekainaren 28aren baitan aldarrikapenerako ekitaldien gaineko laguntza eta bultzada agerian jarriaz.

Era berean, Oñatiko herritarrak kultura eta jai alorreko ekintzetan murgiltzea, haien zabalpenean eragitea eta mobilizazioetan parte-hartzera gonbidatzen ditugu, bai gure eskualdean bertan zein lurralde osoan ere.

Oñatin, 2018ko ekainaren 26an

